

Baratxuria

Nire gurasoak Euskal Herriari itzuli zirenean, 4 urte nituen;

anaiak, 3. Ez genekien hitz bakar bat euskaraz. Fede onez, eta inguruko gomendioei jarraituz, herriko eskolan sartu gintuzten, eskola frantses errepublikanoan. Irakaslearen esanetan, euskara ikastea batera ere lortuko genuen, eta terrorista hutsak ziren ikastoletatik urrun ibiltzea komeni zitzaigun gainera. Handik hilabete batera, herriko ostaturaren jabea gurasoengana hurbildu zen, ondoez zerbaitekin. Ez zen diru kontu bat, batere, bakarrik abisatu nahi zituen... Gurasoak kezkatzen hasi ziren, zer demonio gertatzen zen ulertu nahian. Kontua da irakasleak anaia eta biok bazterreko gela



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

batean gaketzen gintuela, eta han pasatzen genuela eguna... Arratsaldeetan, anaia eta biok leihotik eskapatzeko ohitura hartu genuen, eta ostatura joaten ginuen tragoak edatera. Hori zen gurasoei eman nahi zien abisua. Han askoz gehiago ikasi genuen segur aski... Besterik ez bada, saihesten bi-deen zapore gozoa ikasi genuen.

Euskara ikasteko, beraz, Bai-nako Saint Amanden zegoen

ikastolan sartu gintuzten. Eta hitza jaso genuen, edo Guillerrok eman zigun, hobekiago esateko. Guillermo liburu-etako irakaslea da (orainaldian ezartzen dut, zeren benetako irakasleak jubilatuta ere irakasle egoten dira bihotzean). Bere bi-zaldi auto mundialean eramaten gintuen haraino, ordubeteko bidaia. Eta euskara eskaini zigun, baina euskara eta hitza esan behar nuke.

Aitortu behar dut guk ez dugula giristino senik, baina garaiko ikastolako lagun anitzen etxeetan bazuten bai. Anaia eta biok katximara ez joateak trufa eta ziria eragiten zuen. Ostiralero, gure

Guillerrok biltzar nagusi bat antolatzen zuen, ikasle eta irakasleek adierazi zitzaizkien zeintzuk diren beraien arazo, asmo, gogo edo pozak. Sei hilabete euskara ikasirik, hitza eskatu nuen, nire

kezkak adierazteko. Guillerrok, bere begi irribarretsuekin, hitza eman zidan. Altxatu nintzen, eta banan-banan eskatu nien ikasleei zertarako sinisten zuten jainko batean. Eta erantzuna berdintsua izan zen oro har: «Nire gurasoek sinisten dutelako». Nik ihardetsi nuen ez nuela inongo jainkotan sinisten, nire gurasoek sinisten ez zutelako. Biltzar nagusi horretan, 5 urte nituela, amaitu ziren ziriak eta ondoezak.

Guillerrok irakatsi zigun gure ezberdintasunak euskaraz uztartzen ahal genituela, jolas parkean abenturaz abentura ibiltzeko. Hitza eta euskara, bat dira. Eta hau irakatsi eta eskaini ziguna sorgina, magoa ala jainkoa baino gehiago dela esan daiteke: haurren komunitatearen bateratzaile zintzo bat.

Gaur egungo haurrei pentsatuz, jakin badakigu literaturak, antzerkiak edo zinematik trauma handien izu korapilatsu eta anitzak adierazten dituztela, besteak beste. Gure komunitateen aldaketa bortitzak ulertzen laguntzen dituzte. Hari horretatik, aldizkari kultural batean irakurri dut gizarie zientzietan ari ziren aditu batzuk ohartu direla fikzio apokaliptikoak ikusten edo irakurtzen dituzten pertsonen lasaitasun handiagoarekin bizitzen dutela pandemiak eragindako itolarria. Hitzak eta irudiak baliatuz,

arrangurak marraztuz, elkarbitzarako zailtasunei aurre egiteko gaitasunak garatzen ditugu. Fikzioak pentsaezina irudikatzen laguntzen digu, eta izoztu ez gaitzean laguntzen gaitu. Katastrofearen fikzioak izuari erantzuteko giltza batzuk eskaintzen dizkigu.

Pragmatismo hutsez, eta entzuten dena filtrorik gabe irenseteko ohitura berri honekin, berehala lanean jarri naiz. Etxeko pantailla piztu, eta holako fikzioak sekula ikusi ez arren, zombi film bat ikusten hasi naiz. Ohitua eskasa izango da, baina ezin izan dut osorik begiratu. Izua eta

izoztearen aurkako txertoak ez dit balio izan, behin baino gehiagotan saiatu naizen arren.

Albisteak irakurri eta irratian entzun ondoren, areagotu egin zait ondoeza. Zonbiak albisteetan nagusitu al dira? Kargudunak txertoa ebasten beraien onurarako, militarrek haiekin bat, gazteak makilakadaz isilduak... Muga berriz ixten dute COVIDa, terrorismoa eta migrazioa mugatzea- ren aitzakian, hitz horiek guztiak esaldi berean erabiliz, eta gure lurraldea zatituz, berriz ere. Zintzurra estutu zait, eta hortzak tinkatu ditut. Adituek estimatzen dute pobrezian bizi den edonork ha-

mar urte beharko dituela krisi honetatik ateratzeko, eta aldi berean, 2020an bakarrik, munduko hamar aberatsenek beraien fortuna 540 bilioi dolarrez emendatu dute, COVIDari esker.

Zonbiak dantzan gizatasuna albo batera utzita, banpiroak lagun, bizidunon odola xurgatzen azken tantaraino; hauek dira albistegien lerroburuak. Baina gogoratzen dut Guillermo, eta nire haurtzarora elikatzen duen antzerkia. Hau dena eskaintzen digute: leihoa, ostatur, hitza eta euskara. Izuaz eta izozteaz babesteko, banpiroen aurkako baratxuria baino indartsuago zaizkit.

Gaur egungo haurrei pentsatuz, jakin badakigu literaturak, antzerkiak edo zinematik trauma handien izu korapilatsu eta anitzak adierazten dituztela, besteak beste. Gure komunitateen aldaketa bortitzak ulertzen laguntzen dituzte

Bilbao

**TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA**

ANTZERKIA

ANTONIA

OTSAILAK 2, 3

Dramaturgia eta Zuzendaritza:
Javier Linaera

Antzezleak:
Aitor Pérez Collado
Begoña Martín Treviño

ANTZERKIA

KONPROMISOA

OTSAILAK 4

Antzezleak:
Joseba Apaolaza
Ramon Agirre
Zuhaitz Gurrutxaga

Zuzendaritza:
Begoña Bilbao Lejarzegi

Itzulpena:
Martin Agirre

ANTZERKIA

ATZERRIAN

LURRA GARRATZ

MARTXOAK 2, 3

Zuzendaritza:
Amancay Gatzaga

Antzezleak:
Ander Lipus & Laura Penagos

EL CORREO
Deia
Bizkaia
bbk
SE2
PCC
inaem
myragon
Lingua